

Poesia

ELENA SANCHEZ

EPILOGORIK GABE

BLAS DE OTERO - ÁNGELA FIGUERA
NAZIOARTEKO XVI. POESIA LEHIAKETA

erein

EPILOGORIK GABE

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaetzakoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.
Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Bilboko Udalak eta Blas de Otero Fundazioak antolatzen duten Blas de Otero - Ángela Figuera XVI. Poesía Lehiaketa irabazi du liburu honek.

1. argitalpena: 2024ko urrian.

Azala eta liburuaren diseinua:

A. Beltza

Maketazioa:

Erein

© Elena Sanchez

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-978-9

L.G.: D 732-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Ulzama

Altutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

contacto@ulzama.com

www.ulzama.com



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Elena Sanchez

EPILOGORIK GABE

BLAS DE OTERO - ÁNGELA FIGUERA
XVI. POESIA LEHIAKETA

*Enara eta Izarori.
Etorkizuna oparitzen diet.*

AURKIBIDEA

No future	7
No future	7
Gu ez ginen inoiz izan Berlingen	10
Porturik gabe	12
Amets prekarioak	13
Deserrituak	14
Huts egin nuen	16
Desertatzen	17
Kresalarena	18
Elegy for the arctic	19
Larrialdietako irteera	20
Historia eta gu	22
Beldurraren tiraniaren aurka	25
Sinfonia onirikoak (Lo nagoen bitartean)	27
Ez dut oroitzen noiz etorri zen	30
Ni ez naiz Mary Shelley	31
Audre Lorde Saforekin bakardadeaz mintzo da	33
Estaziokoak	35
Emakume artista (inbentarium)	37
Gauaren hotsak	39
Habitación 509	40
@	42
<i>Blade Runner</i> agertu da pantailan telebista piztu dudanean	43
Zure begirada (Bakarrizketa metonimikoa)	45

Iran Masha Amini eta gero	46
Poeta iruzurgilea da	47
Epilogo	49
Enegarrean	51
Toki segurua	52
Gramatika berria	54
<i>Epaimahaiaren akta</i>	57

NO FUTURE

NO FUTURE

Hilabeteak dira balkoiko landareak
ureztatzen ez ditudala.

Arratsalde honetan,
Banskyren graffiti batean bezala,
itsasoak zulo urdin bat zabaldu du
nire etxeko horman
eta barruraino sartu zait.
Eta orain olatuen hotsa entzuten dut hemendik,
bere burrunba eternala.
Arrotza. Ulergaitza.

Historiaren urte luzeak ekarri ditu
eta inork irakurtzen ez dituen entziklopedietako argazki maiztuak.

Ispiluen aurrean geldu,
zutik nago.
Mutu, indarge,
mundua etengabeko gerra batean
urtzen den bitartean.

Gerorik ez
supermerkatuko pasilloetan galdu zen
belaunaldi batentzat.

GU EZ GINEN INOIZ IZAN BERLINEN

*...denak bihurtuak ginen ordurako
geure antonimo eder bat.*

ANARI, Autodefinitua

Gu ez ginen inoiz izan Berlinen.

Ez.

Zeru gorri bat zuen argazkia

heldu zitzaigun behin handik.

Baina jada inork ez ditu postalak idazten.

Non dago garai batean

amets egin genuen hura?

Pink Floyd «The Wall» jotzen

Brandenburgoko Atearen ondoan.

Baina gu ez geunden han.

Coda triste bat.

«Ez genuen jakin nola egin», esango dugu.

Eta negarra izoztuko zaigu

aitzakiaren osteko kulpa mingarrian.

Leihotik begiratzen dut ohartzeko

ezer ez dela aldatu prekarietatearen

gurpil eternalean.

The Clash taldearen kanta zaharrak
patioko esekitokietatik zintzilik.
Nostalgia elastiko beltzetan.
Kristalak desitxuratutako irudia,
nola *kalimak* behin tindaturiko paisaia laranjak, hala.

Denboraren asimetrietan galdurik
jarraitzen dugu.
Nekatuta.
Bizitzaren simulakroa
bizitzea ekidin nahian. Ez besterik.

PORTURIK GABE

Ez galdetu.

Orain ez dakit
zergatik bota nuen aingura
kostalde honetan.
Uhinen danbadek jotzen dutenean,
(apenas mugituz),
emaro kulunkatzen da
baina ez doa.
Gezalak, beharbada, higatu egin du.

Marinelak igarotzen dira
eta ez dute galdetzen.
Zertarako jakin
nondik datozen marmokak,
zergatik dagoen korala arrokari helduta,
nork laztantzen duen kaioa
neguko arrats goibeletan.

AMETS PREKARIOAK

Urratzen du eguna
etsipenezko zaparradetan.

Hor.

Nonahi.

Kale itsuetako zuhaitz urbanoek ere
hemendik ihes egingo luketenean.

Ilusioaren eskaner hutsala.

Eta zu, marjinalitatearen leihotik so.

Zergatik maite dituzu hainbeste
mila koloretan eztanda egiten duten
pantailetakoa argazki pixelatuak,
hauteskunde kanpainetakoa diskurtso edulkoratuak.

Piano notak. Ohe bat.

Paradisutik bezala

txorrotatik ateratzen den ur beroa.

Gauetz barreiatzen diren ametsak
kutxazain automatikoan.

DESERRITUAK

Nabigazio-mapa urratuak,
deserrituak gara.

Denboraren erbesteratuak
ezlekuetan bizi gara, garairik gabekoak.

Hareazko ametsak eta amesgaiztoak
ozeanoko korrontetean
gesaltzen diren unea
azalean tatuaturik,
eskuetako marrak bezala.

Jarraitzen dizun itzalak ere
arratsaldean
beste hizkuntza batean agiraka egiten dizu
kaleko zorabio hipnotikoan.

Arnasa ere arrotza denean
hutsaren diametroak ezin du ahanztura hobiratu.
Zeure burua begitandu duzu
beste baten oinetakoen barruan noragabeen.
Dolu alderraia.
Inongo albistegitan azalduko ez den
zure eta nire iraganaren lirika.

Deserrituek
letoizko zubiak zeharkatuko dituzte
borrero eternalen
eta gau izoztuen
izenak sastatzeko.

HUTS egin nuen
Elliot Murphyrerikiko urruneko hitzordu hartan.
Ia 35 urte joan dira.
Fokuen argiak gaur
ozta estaltzen ditu
nire eta haren adinaren zantzuak azalean.
Eztanda egiten du gitarraren hotsak
arratsaldearen tolesturan.

Baina, non ipiniko ditut gero
orain egingo ez ditudanak?

DESERTATZEN

Egun suizidatuak zenbatu ditut.
Hasi bezain laster
amaitu nahi dutenak.

Elkartasun haize batek astintzen nau,
gogoan
ezerezarekin bat
egiten duten horiek.
Bizitzaren desertoreak.

KRESALARENA

Kresalezko identitateak.

Kostalde urruna,
eta ez dago garaikurrik hondartzan
ezta ametsen txatalen arrastorik ere.

Mare Nostrum soilik *nostrum* zela
idatzi genuen aparrean,
hormak eraiki olatuetan.
Eta hor daude,
itzal luze eta zimelduak
gure kontzientzien desorekan.
Nabigatzen.

Troiarik gabeko gerlari naufragoak.
XXI. mendeko odiseoak.

ELEGY FOR THE ARCTIC

Gaua

eta kontainer-ontziak

Artikora heltzen direnean

euriak

baleen bizkarretan idatzitakoa

deusezta lezake.

LARRIALDIETAKO IRTEERA

Azkenez heldu da negua basamortura
eta zaparrada ilunak
musker berdeen begiak ito ditu.

Toki exotikoak maite genituen garai batean
–basamortuak eta fosa abisalak,
uharriak–,
gure herritik urrun geratzen zirelako, agian.
Baina orain,
egunkariak inork irakurtzen ez dituen egunotan,
munduko utopia guztiak
zirimolarekin dantzan ari dira,
utopia higituak,
maiztuak,
katramilatzen norabiderik gabe amiltzen den
mundu zahar honetan.

Azkenez heldu gara basamortura.
Han aurkitu dugun negua
ez da gure ametsetan agertzen zena bezalakoa.
Isilik egon behar dugu
elurra emeki erortzen den bitartean,
isilik galdetzen,
noraino joango gara.

Azkenez heldu da gaua basamortura.
Ilunpeko isiltasunak ez du
neguko zurrumurru ikaragarriak entzuten uzten.

Non da larrialdietako irteera?

Urrunean,
 oso urrunean,
piano bat izozmendi baten gainean,
basamortuak, fosa abisalak,
arrezifeak.

HISTORIA ETA GU

Agortu zaio pila eskumuturreko erlojuari.
Aspalditik dago 14:33an geldirik,
hor iltzaturik, itsatsirik,
fosilizaturik bezala,
jada inora joan nahi izango
ez balu bezala.
Indarge.
Ezgai.

Horregatik ez dakit nora jo.
Ordainpeko autobideko
aireporturanzko seinale horiari jarraitu,
edo bere buruaz beste egin duten orratzekin
bat egin
denboraren narratiba eszentriko honetan igerian.

Zer gertatuko da gurekin
une batean bizitzan
geldirik geratu ginenak
inperfekzioaren bidetik
amaitzen zen aro bati begira
eta jaiotzen ez zen egunsenti berriaren esperoan,
desilusioaren aritmetikan galduta.
Estatistikek inoiz azalduko
ez dituzten hutsuneak.

Garai bateko harria
birrindutako harea bezala desagertzen da
esku artean.

Oraindik ebazten ikasi ez ditudan
eragiketa matematikoak.

Desengainuaren gatibu
kaleetan barrena ibiltzen gara,
euritik babestuko gaituen aterpe baten bila.

Eta ez,
testu liburuetan Historiak
ez du gutaz hitz egingo.